



PROIEKTU ARTISTIKOAK
PROYECTOS ARTÍSTICOS 2019

FELICES

Rut Briones y Raquel Durán

2020ko otsailaren 21etik maiatzaren 3ra
21 de febrero al 3 de mayo de 2020

Zorion berehalakoa, zorion artifiziala, zorion metatua, zorion jakinarazia...

Felices XXI. mendean gure gizarteak –gizarte den aldetik– baliatzen dituen zorion-mota desberdinei buruzko hausnarketa multisentsoriala da.

Erakusketa osatzen duten instalazioetako bakoitzak zorionaren alderdi kontzeptualen batean sakontzen du, eta gonbitea egiten du kolokan jartzera –kritikoki jarri ere– zorion iraunkorraren bilatze aktiboan murgildu beharra, autoerrealizazio pertsonalaren ikur gisa ulertuta.

Aurrez aurre jartzen direlarik elementu analogiko eta digitalak, kolektiboak eta indibidualak, eta baita beste binomio batzuk ere, erakusketak esperimentaziorako gune bihurtuko du aretoa, halako moduan non partaideek kolokan jarri ahalko duten zorionsu egiten dituen hura, eta baita zorionaren sena bera ere.

Lan honek artistek norbanakoaren eta gizartearen (betiere Europako mendebaldeko gizartearen esparruan) elkarrekiko harremani eta estimuei buruz aurretiaz egin dituzten lanetan aztertu duten gai-ildo baten zati da. Felices kolokan jartze batetik sortzen da, kolokan jartzea, batetik, dimentsio existentzialeko zorion batekiko obsesioa gizakiak berezko dituen kontraesanekin harreman zuzenean jartzen denean gertatzen denari buruz, eta bestetik, zoriona egoera egonkor eta betiereko gisa lortzearen ezintasunak eragiten duen frustrazioaz.

Kredituak

Antzezleak: Ane Pikaza, Diego Pérez eta Yolanda de Haro

Off ahotsa: Igor de Cuadra

Programazioa: Libe Belandia eta Santiago Noreña

Ekoizpena: Gheada Estudioa

Felicidad instantánea, felicidad impostada, felicidad acumulada, felicidad comunicada...

Felices es una exploración multisensorial de los distintos tipos de felicidad a los que recurrimos como sociedad en el siglo XXI.

Cada una de las instalaciones que componen esta exhibición indaga en los aspectos conceptuales de la felicidad e invita a realizar un cuestionamiento crítico acerca de la búsqueda activa de un estado de felicidad permanente como símbolo de autorrealización personal.

A través de la contraposición de elementos analógicos y digitales, colectivos e individuales, y otros binomios encontrados, la exhibición transforma la sala expositiva en un espacio para la experimentación en el que los y las participantes de la experiencia podrán cuestionar aquello que les hace felices y la propia esencia de la felicidad.

Este trabajo forma parte de una línea temática explorada por las artistas en sus trabajos previos, centrada en la relación y efecto mutuo entre individuo y sociedad en el contexto de la sociedad occidental europea. Felices nace de un cuestionamiento sobre qué sucede cuando esta obsesión por una felicidad de dimensiones existenciales entra en contacto directo con las contradicciones inherentes al ser humano, y la frustración que genera la imposibilidad de alcanzar la felicidad como estado permanente.

Créditos

Intérpretes: Ane Pikaza, Diego Pérez y Yolanda de Haro

Voz en off: Igor de Cuadra

Programación: Libe Belandia y Santiago Noreña

Producción: Estudio Gheada



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala